

GEROA
EUSKARATIK
elkar hartuz, **elkar zainduz**



EUSKARATIK

COVID-19ak mundu osoa astindu du, guztion zaurgarritasuna eta interdependentzia agerian utziz. Hala ere, krisi honek zaurgarrienak kolpatu ditu larrien, eta sistema ez da gai izan erantzun egoki bat emateko: bere gabeziak eta ahuldadeak biluzik utzi ditu krisiak. Baita hizkuntza-eskubideei dagokienez ere.

Berehalakotasunaren eta lehentasunen izenean, hizkuntza komunitate gutxiagotuetako kideok ikusi dugu nola zapaldu dituzten gure eskubideak. Bazterreratu gaituzte, eta bazterrekotzat gaituztela argi erakutsi digute.

Zoritxarrez, ez gara halako egoeran egon garen eta gauden bakarrak. Lehendik zetozen bestelako bazterketa eta eskubide urraketak areagotu egin baitira krisiarekin. Horregatik, gure ertzetik, beste ertz eta bazter guztiekiko begirunea erakutsi nahi dugu. Elkarrekiko enpatia eta zaintza ezinbestekoak ditugula begi bistan geratu da. Eta, horregatik ere, inoiz baino beharrezkoagoa da komunitate eta sare sendoak osatzea, elkar zainduko dutenak, elkar hartuz; abian dugun dinamikaren leloak dioen bezala.

Zentzu horretan, herri ekimenak ez du etenik izan, zailtasunak zailtasun: zaintza sareak, euskal sortzaileen emanak, haurren euskara gaitasuna bultzatzeko taldeak, euskaraz informatzeko hedabide batzuen ahalegina... Halako ekimenek erakutsi digute elkar zaintzeko balioa eta gaitasuna izan baditugula. Badugula nondik abiatu.

Oraindik, baina, ez dakigu COVID-19aren eragina zenbatekoa izango den, zer nolako bilakaera izango duen. Dakiguna da krisi guztiek aldeztatik idatzita ez dauden aldaketak ekarri ohi dituztela. Eta oraingoan ere hala izan litekeela.

GEROA

Horrexegatik, hain zuzen, geuk ere izan nahi dugu aldaketa horien motore eta eragile. Gure ertzetik, gure eskubideak ere erdigunera ekarri behar direla esan behar dugu, berdintasunaren eta demokraziaren izenean: geroa euskaratik ere eraiki behar dugula, bertakotzen, gerturatzen eta saretzen laguntzen duen transmisio uhala delako euskara. Eta guztion eskubideak bermatzeko zubia ere badelako.

Hortaz, ziurgabetasunez betetako etorkizunaren aurrean, berdinzaleagoa, demokratikoagoa, kohesionatuagoa eta eskubideen bermean oinarritutako etorkizun berri baten aldeko apustua egiteko unea da. Jakin badakigulako oinarritzko eskubide bat bazterrean uzten den aldiro, beste guztiak ere ahultzen direla.

Aldarri hau ez da berria, bistan denez. Pandemiak astindu aurretik ere, Kontseiluak esana zuen euskalduntze prozesuak beste fase batera igaro beharra zuela, eta horretarako hizkuntza-politikak berrikusi eta birpentsatu behar genituela. Bada, krisiak irakatsi digu bide hori inoiz baino beharrezkoagoa dugula. Ezin baitiogu bizkar eman hizkuntzaren auziari: erakundeok, eragileok eta

herritarrok egunerokoan egiten ditugu hizkuntza hautuak, eta hautu horiekin ari gara hizkuntza-politika jakin bat bideratzen.

Horregatik, denon inplikazioa beharrezkoa da; are gehiago bizi dugun krisi honetan. Ondorioz, alde batetik, Kontseiluak gizarte eragileekin hizkuntza-politikaren inguruko adostasunak eraikitzekeo prozesuarekin jarraitzekeo konpromisoa hartu du, hizkuntza-eskubideak bermatzea ipar hartuta eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa oinarri izanda. Eta, beraz, inguruan izan ditugun gizarte eragileei, bertan parte hartzekeo deia luzatu nahi diegu.

Eta, bestetik, hizkuntza-eskubideen bermean erantzukizun nagusia duten administrazioei zuzendu nahi gatzaizkie, krisiak sortu dituen kalteei aurre egin, hizkuntza-politikak birpentsatu eta etorkizun hobea eraikitzen hasteko lehen urratsak egin ditzaten.

Horretarako, Kontseiluak sektorez sektore euskalgintzako eragileekin lanketa sendoa egin du, eta egoera berriari erantzungo dioten urgentziazko neurriak identifikatu eta administrazioei helaraziko zaien dokumentu batean jaso ditu.

Urgentziazkoak diogu, ulertzen baitugu krisiari aurre egitekeo talka planaz ari garela, epe motzean aplikatu edo abian jarri beharrekeo neurriez.

Ohartzen gara epe eta garai estuak datozkigula, baina horrexegatik ere, geroa euskaratik eraikitzekeo,

aldaketak egitekeo baliatu behar dugu egoera hau. Gaur bertatik hasita dugulako jokoan geroa.

Horregatik, hain zuzen ere, hurrengo 100 egunak garrantzitsuak izango dira gobernuen aldetik egoera honi erantzun ahal izatekeo zer neurri hartuko diren ikusteko. Norabide horretan hainbat proposamen aurkeztuko dizkiegu EAEko eta Nafarroako gobernuari, arloz arlo normalizaziorako norabidean egoera berezi honetan behar diren premiazko neurriak hartzen has daitezten.

Ondoren jasotzen diren neurriak aipatutako dokumentutik hautatutako zenbait dira. Dena den, ez genituzke alarma egoeran bereziki urratu diren hizkuntza-eskubideak aipatu gabe utzi nahi. Izan ere, osasun asistentzia, segurtasun jarraibideak eta informazioa euskaraz jaso ahal izatekeo zailtasun nabarmenak izan dituzte herritarrek. Horregatik, egoera hori errepikatu ez dadin, protokoloak zehazteari beharrezkoa deritzogu.

NEURRIAK

HEZKUNTZA

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, ikaslerik atzean ez uzteko, murgiltze eta mantentze eredu orokorra ezartzeko bidean, ikasturte berriko eskolaratzean hizkuntza ardatz izatea, besteak beste, ikasturte hasieran gaitasunen ebaluazioa eginez, ikasle-ratioak egokitzuz, hizkuntza beharrei erantzuteko errefortzuak indartuz, bitarteko materialak gehituz, euskaraz hitz egitea helburu duten programen bidez ikasleen arlo emozionala indartuz.

HEZKUNTZA EZ FORMALA

Ume eta gazteen euskara gaitasunak aurrera egin dezan, aurrerantzean administrazioek haur, nerabe eta gazteentzat antolatzen dituzten eskola orduz kanpoko jarduera guztiak euskaraz eskaintzea eta administrazioaren laguntzak jasotzen dituzten hezkuntza ez formaleko ekimen guztietan (kirola, aisia, kultura...) hizkuntza-irizpideak ezartzea; euskarazko eskaintza lehenetsiz.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA

Helduen euskalduntzearen doakotasuna ahalbidetzeko prozesua azkartzea, ikasleek matrikula gastuak aurreratu behar ez izatea lehenetsiz eta ikasgeletan egoera berrira egokitzeko ikasleen ratioak egokitzuz.

EUSKAL KULTUR SISTEMA

Euskarazko sortzaileen lana errekonozitzeko eta babesteko araudia lantzen hastea.

Euskarazko kuotak ezartzea eta nabarmenki handitzea instituzioek antolatutako edo haiek diruz lagundutako kultur programazioetan, euskaraz sortutako kultur adierazpideak bermatzeko.

Euskarazko literatura argitalpenetarako eta ikas materialgintza sortzeko laguntza funtsak handitzea eta euskarazko sorkuntza erosi eta kontsumitzeko bonu bereziak sortzea.

HEDABIDEAK

Erakundeen eta enpresa publikoen publizitate kanpainak areagotzea, publizitate instituzionala euskarazko hedabideetan ere eskainiz. Halaber, publizitate pribatuaren erorketa arintzen laguntzeko neurriak abian jartzea.

Euskarazko ikus-entzunezko edukien sorrera nabarmenki areagotzeko eta ETB1 kalitatezko edukiz hornitzeko, haur eta gazteentzako edukiak, informazioa, fikzioa eta entretenimenduzko edukiak sortzeko inbertsioa handitzea.

INGURUNE DIGITALA

Krisi honek agerian jarri duen behar teknologikoetatik abiatuz, burujabetza teknologikoan sakontzea, euskarak behar dituen teknologiak garatzeko proiektu edo programa berriak abian jarritz. Halaber, ingurune digitala euskarazko edukiz osatzea, eskaintza etengabe biderkatzeko baliabideak jarritz.

LAN MUNDUA

Ekonomia berraktibatzera bideratutako programa eta laguntza deialdi guztietan, bai eta administrazioak aurrerantzean publiko egiten dituen kontratu edota lizitazio guztietan ere, hizkuntza-eskubideak bermatzera bideratutako klausula sozialak ezartzea eta betearaztea.

Gaur egun, euskara ziurtagirien bidez edota euskara planen bidez, euren lan-jarduna euskalduntzeko prozesu egituratuak martxan dituzten enpresei begira, egoera honek atzerapausoak eragin ez diezazkien, galera arriskuak dituztenen kasuan, prozesu horiei eutsi ahal izateko laguntza lerro berezia sortzea.

SUSTAPENA

Ekonomia berraktibatzera bideratutako programa eta laguntza deialdi guztietan onura publikotzat jotako jarduera guztiak, besteak beste euskararen normalizaziora bideratutakoak, lehentasuna izatea laguntzak jasotzeko garaian.

ELKAR HARTUZ, ELKAR ZAINDUZ

Hasiak gara geroa eraikitzen. Jakin badakigu ez garela lehengo egoerara itzuliko, lehengo normalitatea ez dela errepikatuko. Eta, akaso geure buruari galdetu beharko genioke ea lehengo normalitatera itzuli nahiko genukeen; are gehiago, hainbat eremutan, hizkuntza-eskubideenean esaterako, pandemiak bizi genuen ahulezia agerian utzita.

Akaso, normalitate berria izan beharko dugu helburu. Eta, aldaketa egoera hau aukeratzat jo behar dugu. Geroa gaurdanik eraikitzen ari da, ari gara, eta horregatik kokatu nahi ditugu neurri horiek guztiak agenda politikoan.

Halere, arnas sakonagoa ere hartu behar dugu, eta 'Geroa Euskaratik' eraikitzeko eraldaketa sendoagoa eta sakonagoa burutu behar dugu. Alta, horretarako berretsi nahi dugu, duela zenbait hilabete bezalaxe, beharrezkoak direla adostasun berriak, eta horiek erdiesteko lanean ari garela.

'Geroa Euskaratik' eraikitzeko bidearekin hasi ginen, gaur lehen geldialdia egin dugu, eta udazkenean bide hori egiteko proposamena mahai gaineratuko dugu.

Denon artean 'Geroa Euskaratik' eraiki dezagun, elkar hartuz, elkar zainduz.